

euskararen  
berripapera1  
eb

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Doako harpidetza:

Papera: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia kalea, 1 - 01010 VITORIA - GASTEIZ

Tel.: 945 01 69 44 | berripapera@ej-gv.es

Bertsio digitala: [www.euskara.euskadi.net/berripapera](http://www.euskara.euskadi.net/berripapera)

SAKONEAN

01|02

BERRIAK

03

MOTZEAN

04

# Euskaraz egindako ikasketa ofizialen aitortpena

Eusko Jaurlaritzak onartu berri du euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzeko eta euskarazko hizkuntza-ziurtagiriak egiaztatzenetik salbuesteko dekretua. Horren bidez, euskaraz egiten den irakaskuntza aitortzen eta balioesten da, eta ikasketak euskaraz eginda lortutako hainbat tituluren arabera hizkuntza egiaztatzenetik salbuesteko mailak zehazten dira. Era berean, hizkuntza eskola ofizialetan, HABEK homologatutako euskaltegietan eta beste zentro batzuetan euskara ikasketak egiten jarraitzeko hizkuntza mailak zehazten ditu. /02



# Euskarazko tituluak egiaztatzetik salbuestea

DEKRETU HONEN HELBURUA DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKO BATERATUKO MAILAREN BATEAN EUSKARAZ EGINDAKO IKASKETA OFIZIALAK AITORTZEA ETA EUSKARAKO HIZKUNTZA-TITULUAK NAHIZ -ZIURTAGIRIAK EGIAZTATZETIK SALBUESTEA.

# E

uskararen erabileraren normalizazioan pauso erabakigarriak eman dira. Denboran atzera eginez, gogoratu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoaren 1979ko Estatutuaren 6. artikulua zehazten duela euskara euskal herritarren hizkuntza dela, eta gaztelaniarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoan izaera ofiziala duela eta herritar guztiek bi hizkuntzok ikasi eta erabiltzeko eskubidea dutela.

Gerora, 1982ko Legeak, euskararen erabilera normalizatzekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen eta gaztelaniaren erabilera arautu zuen; zehazki, 14. artikuluan xedatzen denez, botere publikoek Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioko langileak mailaz maila euskalduntzen joateko neurriak jarriko dituzte. Lege horren bigarren kapituluak, irakaskuntzan euskarak izan beharreko erabilerari buruzkoak, ikasleek ikasketak hezkuntza maila guztietan euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen du (...).

“

## EUSKARA

irakaskuntza hizkuntza gisa mailaka hedatuz joan da eta gaur egun errealitate bat da hezkuntza maila guztietan.

## EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA BALIOESTEA

Lege horri jarraituta, euskara irakaskuntza-hizkuntza gisa poliki-poliki hedatuz joan da eta gaur egun errealitate bat da irakasmila guztietan. Euskararen ezagutza egiaztatzeke sistemak, beraz, errealitate horrekin lotuta egon behar du. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, euskarazko irakaskuntzaren normalkuntzan egindako ahalegin handia aitortu eta balioetsi behar da, bai eta irakaskuntza horren kalitatea bermatu ere.

Izan ere, euskarazko irakaskuntzaren kalitatea eta heldutasuna kontuan, nahiko ongi bermatzen da euskaraz eskolatuak izan diren ikasleak euskal hizkuntza eta literatura alorrean zein beste hainbat esparrutan behar besteko hizkuntza-trebetasunaren jabe direla; hortaz, ez dute bestelako proba gehigarriak egin beharrik euskarazko tituluak eta hizkuntza-ziurtagiriak egiaztatzeke. Dekretu honek aintzat hartzen dituen salbuespenek balio dute, halaber, hizkuntza eskola ofizialetan, HABEK homologatutako euskaltegietan zein euskara irakasten duten



beste erakunde eta zentroetan euskara ikasten jarraitzeko behar diren hizkuntza-mailak finkatzeko.

## 2008KO APIRILAREN 16TIK AURRERA ESKURATUTAKO TITULUAK

Beraz, 2008ko apirilaren 16tik aurrera unibertsitate mailako, batxilergoko edo goi teknikari titulua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua edo teknikariaren titulua eskuratu eta ikasketen curriculum osoaren %50 baino gehiago euskaraz egin dutenek ez dute euskarako hizkuntza-titulu eta -egiaztagiririk aurkeztu behar. Salbuespen horiek eragina izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek egiten dituzten enplegu publikoko deialdietako hautaketa- eta hornikuntza-prozeduretan, baldin eta hizkuntza-tituluak edo -ziurtagiriak baldintzatzen eskatu edo meritu gisa baloratzen badira. Halaber, salbuespenek eragina izango dute administrazio publikoetako kontratazio-baldintzetan, hizkuntza-tituluak edo -ziurtagiriak kaudimen teknikoko baldintzatzen eskatzen diren kasuetan.

# V. Inkesta Soziolinguistikoaren EAERI buruzko datuak aurkeztu dira

V. Inkesta Soziolinguistikoaren lehen emaitzak, EAERI dagozkionak, kalean dira jada. Nafarroako eta Iparraldeko datuak ere laster batean ezagutaraziko dira. EAERIkoak Euskararen Aholku Batzordean eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu dira. Hurrengo hauek dira emaitza azpimarragarriak:


Inkesta soziolinguistikoaren arabera, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %32 elebiduna da EAEn, %17,2 elebidun hartzailea eta %50,8 erdalduna. Elebidunen kopurua etengabe ari da gora egiten. Gaur egun, 600.050 elebidun daude, 1991n baino 181.000 gehiago. Lurralde historikoen artean alde nabarmenak daude: Gipuzkoan elebidunak %49,9 dira, Bizkaian %25,4 eta Araban %16,8. Lurralde guztietan gertatu da hazkunde nabari bat aurreko inkestaren datuekiko.

Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago: 16 eta 24 urteko gazteen %60 elebiduna da, hau da, 1991ko ehunekoaren halako bi baino gehiago. Hala ere, gazteen pisua biztanleria osoarekiko txikia denez, elebidunen hazkundeak ez du horrenbeste isla biztanleria osoko emaitzetan. Elebidunen artean euskaldun zaharrak nagusi badira ere, adinak behera egin

“

## 16 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEEN %32

elebiduna da EAEn, %17,2 elebidun hartzailea eta %50,8 erdalduna.



ahala, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 16 eta 34 urtekoen artean erdiak baino gehiagok etxetik kanpo ikasi du euskara, eskolan edo euskaltegian. Elebidunen laurdena pasatxo hobeto moldatzen da euskaraz gaztelaniaz baino. Hala ere, ehuneko hori bostena (%20) baino ez da gazteen artean. Transmisioari dagokionez, ia guraso elebidun guztiek euskara transmititzen dute. Guraso elebidun gehienek euskara soilik transmititzen dute, baina gero eta gehiagok erdara

ere transmititzen dute euskararekin batera, batez ere euskaldun berriek.

Euskararen ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazi. Bilakaera horren oinarrian erabilera eragiten duten bi faktore nagusiak daude: erraztasuna eta harreman-sarea. Hala ere, euskararen erabilera gora egin du apurka-apurka. Hazkundera handiagoa izan da eremu formalean eta apalagoa etxean, seme-alabekiko erabilera izan ezik, horrek gora egin baitu nabarmen.

## 20.000 ikasle euskara-probetan



Aurten, HABEren bidez, 10.000 ikaslek baino gehiagok egin dute euskara-maila egiaztatzeko idatzizko gaitasun-proba. Bestalde, ia beste horrenbeste aurkeztu dira Hezkuntza Sailaren EGA azterketara. Bi deialdi horiekin halako argazki moduko bat osa dezakegu, euskarazko titulu edo aitortzen ikasketa ofizialen argazkia.

HABEri dagokionez, Plan Estrategikoa burutzerakoan euskaltegiek egingo duten eskaera kontuan hartu eta euskarazko tituluen jarraipenerako adituen txostenak gomendatutako bideari jarraituz, aldaketa handiak egin dira aurtengo azterketa deialdian. Alde batetik, lehen deialdian idazmenaren gaitasun-proba gairatu eta mintzamenarenean "ez gai" izan den azterketariari gorde egingo zaio

emaitza urte bereko bigarren deialdirako, eta horren ondorioz, mintzamenaren gaitasun-probara zuzenean aurkezteko izango du. Bestetik, eta lehenengo aldiz, entzumenezko eta irakurmenezko probak euskaltegi edo euskararen auto-ikaskuntza zentro homologatuan bertan egingo dituzte ikasleek. Helburua sistema arrazionalizatzea da, ikasleei erraztasunak emanez eta euskaltegiei protagonismo handiagoa emanez.

V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzen arabera, eskola da euskaldunen sortzaile nagusia. Baina, eskolarekin batera, euskaltegiak dira helduen artean euskalduntzearen eta alfabetatzearen funtsezko zutabea, euskaldun berriak giltzarri baitira euskararen berreskurapenean eta normalizazioan.

## Eremu urriko hizkuntzak hizpide Frantziako hauteskundeetan

Frantziak 1999an izenpetu zuen Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, baina ez du inoiz berretsi. Errepublikako Lehendakartzarako hauteskundeetan, hizkuntza horien aldeko eragileek ekimen batzuk antolatu dituzte.

Martxoaren 31n, kale-agerraldiak gertatu ziren berezko hizkuntza duten Frantziako antzinako probintzia gehienetan, Gutunaren berrespenaren eta tokian tokiko hizkuntzaren ofizialtasunaren alde. Baionan, adibidez, 7.000 lagun manifestatu ziren seigarren Deiadar ekitaldian, Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan euskara ofiziala izan zedin aldarrikatuz. Baionan inoiz izan den agerraldirik arrakastatsuenetako bat izan zen martxoaren 31koa, bertan Ipar Euskal Herriko hautetsi anitzek hartu zuen parte.

Beste alde batetik, Frantziako eremu urriko hizkuntzen aldeko eragileek eskaturik, Errepublikako Lehendakartzarako hautagai gehienek beren iritzia adierazi zuten Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren berrespenaren gainean. Lehen itzulian aritu diren hamar hautagaietarik lau agertu dira Gutunaren alde: François Hollande (Alderdi Sozialista), Eva Joly (Europa Ekologia-Berdeak), Philippe Poutou (Alderdi Antikapitalista Berria) eta François Bayrou (Mugimendu Demokratikoa). Beste lau hautagai kontra azaldu dira: Nicolas Sarkozy (Herri Mugimenduaren aldeko Batasuna), Marine Le Pen (Fronte Nazionala), Jean-Luc Mélenchon (Ezkerreko Frontea) eta Nicolas Dupont-Aignan (Zutik Errepublika). Nathalie Arthaud (Langile Borroka) eta Jacques Cheminade (Elkartasuna eta Aurreapena) ez dute iritzi garbirik adierazi.

Frantziak Eurogutuna berretsiko balu, Konstituzioa aldatu beharko luke, antza, bertako 2. artikuluan xedatzen denez, frantsesa baita Errepublikako hizkuntza ofizial bakarra.

## EUSKARARI OMENALDIA ESPAINIAKO HIZKUNTZARAKO ERREGE AKADEMIAN



Espainiako Hizkuntzarako Errege Akademiak (RAE) euskarari omenaldia eskaini zion historian lehenengo aldiz, joan zen martxoaren 14an, Madrilen. Euskara sustatu eta hedatzeko helburuarekin Euskaltzaindiak, Etxepare Institutuak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak antolatutako "Euskarari Gorazarre" jardunaldien barruan egin zen ekitaldia. Kataluniako eta Galiziako hizkuntza akademietako ordezkariak ere izan ziren bertan.

Jose Ignacio Wert Espainiako Gobernuako Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroaren gidaritzapean burutu zen ekitaldia, eta helburua euskararen garrantzia nabarmentzea izan zen, gaur egun 850.000 lagun baino gehiagok hitz egiten duten hizkuntza. Ekitaldian parte hartu zutenak euskaraz eta gazteleraz aritu ziren.

Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuak ezin izan zuen Madrilen egon, azkeneko momentuan sortutako arazoak zirela eta. Ekitaldirako prestatu zuen idatzia Etxepare Institutuko zuzendari Aizpea Goenagak irakurri zuen haren ordezkari. Gainera, 2008an hil zen Henrike Knörr hizkuntzalaria eta euskaltzaina zena omentzeko baliatu zuten ekitaldia.

## 'Lur Hiztegi Entziklopedikoa' eta 'Lur Entziklopedia Tematikoa' sarean

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) sarean jarri ditu jada *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* eta *Lur Entziklopedia Tematikoa*. Era horretan, euskaraz ikasten dutenek beste kontsulta-tresna bat izango dute on-line kontsultak egiteko.

*Lur Hiztegi Entziklopedikoa* eta *Lur Entziklopedia Tematikoa* sarean kontsulta daitezke honako helbideetan: [www.euskara.euskadi.net/lur-hiztegia](http://www.euskara.euskadi.net/lur-hiztegia) eta [www.euskara.euskadi.net/lur-entziklopedia](http://www.euskara.euskadi.net/lur-entziklopedia).

Paperezko formatuan bakarrik argitaratutako bi lan horien corpusak orain hiru urte eskuratu zituen HPSk. Paperezko bertsioa 2000-2001 urteen bitartean eguneratu bazen ere, HPSk 2009an hiztegiko eta entziklopediako oinarriko datu batzuk gaurkotu zituen.

Corpus hau sareratzearen helburua izan da, batetik, ikasleei on-line kontsultatzeko tresna bat gehiago eskaintzea, eta, bestetik, Interneten euskararen presentzia handitzea, eduki digitalizatu gehiago eskainiz. Hala ere, kontuan hartu behar da bi lan horiek aspaldikoak direla eta eduki gehienak zeuden-zeudenean eskaintzen direla, hau da, ez direla eguneratu ez eta zuzendu ere.

*Lur Hiztegi Entziklopedikoa* 1991n argitaratu zen. Kontsultan eskaintzen dena 1990-1995 urte bitartean papelean inprimaturiko edizioaren hamar liburukiak dira, 49.900 sarrera baino gehiago, alegia. *Lur Entziklopedia Tematikoa*, berriz, 1999an argitaratu zen. Entziklopedia orokor baten berezko egitura izanik, Euskal Herriari buruzko bost liburuki eta izaera uni-bertsaleko gaii buruzko beste zortzi liburuki ditu.

Gogoratu behar da, baita ere, iaz, HPSk Lur Hiztegiko eta Lur Entziklopediako 11.000 artikulua egokitu zituela Wikipedian argitaratzeko.